

EGUNEKO GAIA 03 «IRATI» FILMA ZINEMA ARETOETARA IRITSI DA

Ezpaten eta sorginkeriaren epikotasuna Irati oihanean bizi da


Sorgin jakintsuak, tartalo beldurgarriak, ezpata-borrokak, zaldi gaineko ihesaldiak, arnasarik gabe uzten zaituzten Pirinioetako paisaia ikusgarriak... eta amodiozko istorio bat. Osagai ugari ditu, baina, batez ere, maitasuna dago «Irati» filmean: maitasuna gure kulturari, naturari eta zinemaren ofizioari. Gaurtik aurrera, «Irati», 112 zinema aretotan ikusgai.

Amala EREÑAGA | BILBO

Ia bost hilabete itxaron behar izan dugu "Irati" filma zinema areto komertzialetan ikusi ahal izateko. Iazko urrian Sitgeseko fantasiazko zinema jaialdian estreinatu zenetik, soilik jaialdi batzuetan –Sitgesen bertan eta Donostiako Beldurrezko Jaialdian ikusleen saria jaso zuen, besteak beste– eta ekitaldi berezietan erakutsi da; esaterako, Durangoko Azokan. Gaur, azkenean, zinema areto komertzialetara iritsiko da.

Eta, istorio on guztiekin gertatzen den bezala, itxaronaldiak merezi izan du. Film fantastiko eta epiko onenen osagaiez jantzi baitu Paul Urkijok bere bigarren film luzea eta, zalantzarik gabe, bere lanik anbiziotsuena dena. Asteburuan Estatu espainiarreko 112 aretotan estreinatuko da, zinemagile arabarrak Bilbon atzo baieztatu zirenez. «Guk ez dugu aukeratzeko nola emango den, hori aretoen esku gelditzen da, baina ezuste atsegina hartu dugu ia gehienetan bertso originalean, euskaraz, egongo delako, azpitituluekin. Gehienek bertso originalean ikusiko dute eta hori poztasunez hartu dugu, pelikula horrela ikusi behar delako, gure uestez», esan zuen.

Udalak antolatzen duen Fant Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren "aperitibo" gisa eskaini zen aurrestreinaldia atzo arratsaldean, Alondegian. Fant maiatzaren 5etik 13ra egingo da eta zinemagile arabarrak gertutik ezagutzen du jaialdia, hor aurkeztu zuelako "Errementari" ere, bere opera prima, eta aurretik egin dituen film laburrak. 2018an, Fantropia saria eman zioten; alegia, zinema fantastikoaren ba-



Ezker-eskuin, Justo Ezenarro (Fant-eko zuzendaria), Edurne Azkarate, Paul Urkijo, Eneko Sagardoy eta Itziar Ituño.

Marisol RAMIREZ | FOKU

ANBIZIOA

«Benetan egingo dut hau? Pelikula bat euskaraz, euskal mitologiari buruz, ezpata eta sorginkeria film bat?», gogoan du pentsatu zuela Paul Urkijok, baina «ahalik eta film handiena» egitea erabaki zuen. Azken muturreraino.

rruan gorabidean dagoen pertsona bat saritzen duen saria.

Euskara hutsean filmatuta, XVII. mendean hitz egiten omen zen euskara eder eta kantarian, hasieratik bukaerara gure mitologiaren mundu magikoan murgiltzen gaitu. Hor daude, proiektu honen sustrailetan, egileak berak airtortu zuenez, Joxemiel Barandiaranek bildutako mitoak, hor Joxean Muñoz eta Juan Luis Landaren komikiak ("Irati zikloa"), hor ere Sutagar taldearen "Mari" kanta.

Amets bat, kate bat «Film honen amets bat bete dut –airtortu zuen zinemagileak–, txiki-txikitik euskal

mitologiarekin eta fantasiarekin izan ditudan amets horiek betetzea lortu dudalako. Pelikula altzatzea zaila izan da, baina filmatzera joan nintzeanean ez nuen sinistu ere egiten: 'Benetan egingo dut hau? Pelikula bat euskaraz, euskal mitologiari buruz, ezpata eta sorginkeria film bat?' Harrituta eta oso eskertuta nago. Nik istorio honekin herriak eman zidan zerbait herriari itzuli nahi nion. Kate bateko kate-maila bat baino ez naizelako, eta nahi dudana da guzti hau babesten jarraitu ahal izatea: hizkuntza, natura edo kultura zaintzeaz ari naiz, eta hori maitasunaren bidez soilik egin daiteke», aipatu zuen.

Istorioak VIII. mendean kokatzen gaitu. Kristautasuna hedatzen ari da Europan, eta sinesmen paganoak desagertzen. Frankoen erasoaldiaren ondoren, Karlo Magnoren armada Pirinioak zeharkatzera doala, ibar-jaunak laguntza eskatzen dio antzinako jainkosa bati, Mariri (Itziar Ituño).

Odolezko itun baten bitartez etsaia Orreagako guduan garaitzen du, trukean bizitza emanda, baina aurretik, Eneko (Eneko Sagardoy) semeari hitzemanarazten dio bere herria babestu eta gidatuko duela aro berrian. Semea, Eneko Aritza edo Arista bihurtuko dena, Nafarroako errege-erreginen dinastiako lehen izen ezaguna

POETIKOA

«Zaila izan da proiektu hau aurrera ateratzea. Amerikarrentzat erraza izango da, baina horrelako herri txikian, ia esfortzu poetikoa dela esango nuke», aipatu zuen Itziar Ituñok.

da. Urte batzuk beranduago, Enekok ibarreko pagano baten laguntza beharko du aita eta ondarea berreskuratzeko, eta Irati (Eduarne Azkarate) emakume enigmatiko baten laguntza eskuratuko du.

Batez ere Aralarren, Piriñoetan, Oñatiko Arrikurutz eta Enkarterriko Pozalaguako leizeetan filmatutako irudi ikusgarrietan natura oso modu «organikoan» dago txertatuta eta erakutsita. Pantaila handian ikustea gomendagarria da oso. Irribarre batekin, zinemagileak David Lean britaniarraren "Lawrence of Arabia" (1962) aipatu zuen... eta aitortu behar da zenbait eszenak -gailurren ikuspegi panorami-

koak, esaterako- gogora ekartzten duela klasikoek epikotasun hori. Iratiko naturan bertan grabatu baita filmaren zati handiena, %80, Urkijoren esanetan, urtaroko kolore naturalekin, bere edertasunarekin, bere tristurarekin... bere gortasunarekin, ez baita erraza toki horietara zinemak behar duen muntaketa guztia eramatea.

Bat, korrikan; bestea zaldi gainean Euskal aktore ezagun ugari agertzen dira filmean -Ramon Agirre, Nagore Aranburu, Patxi Biskert...-, baita *cameo*ren bat -Karlos Argiñano sukaldaria- eta arkikuntza berri batzuk ere. Esaterako,

Eduarne Azkarate, emakume adoretu eta misteriotsua pantailan: «Amets bat betetzea izan da niretzat, pelikula bat egitea zaila delako gure ogibidean; eta egitea bera sari bat da niretzat». Pertsonaia "fisikoa" da Irati: «Bai, ni beti korrikan; Eneko, zaldi gainean», bota zuen umorez.

Eneko Sagardoy Eneko Arizta pertsonaia historiko-mitologikoaren azalean sartu da. Baita Eneko Ariztaren gorputz sendoan ere: «Oso dibertigarria izan da filma egitea eta, era berean, ohartzen naiz zerbait historikoa egiten ari garela gure zinemarentzat. Zaldian ibiltzeko aukera eman dit, gainera, ezpartarekin borrokatze-

koa, eta baita nire gorputza muskulatua ikusteko aukera ere [10 kilo irabazi zituen pertsonaia egiteko], nahiz eta egun muskulu horietatik ez den askorik gelditzen».

Itziar Ituño Mari da; Mari beldurgarri bat, erabat fantastikoa, magikoa. Lau egun baino ez zituen eman filmaketan, baina Marik pisu handia du istorioan. «Horren herri txikia izanda, horrelako istorio bat etorkizunerako uztea sekulakoa da -aipatu zuen Baskuriko aktoreak-. Zaila izan da proiektu hau aurrera ateratzea. Amerikarrentzat erraza izango da, baina horrelako herri txikian, ia esfortzu poetikoa dela esango nuke».

IRATI

La gran obra de la Euskal Mitología

IRATI

EH. 2022. 114'

Dtor. y guion.: Paul Urkijo Alijo.

Prod.: Paul Urkijo, Joanjo Landa e Iñaki Buruchaga/Balnet.

Int.: Eneko Sagardoy, Eduarne Azkarate, Itziar Ituño, Elena Uriz, Kepa Errasti, Nagore Aranburu, Iñaki Beraetxe, Ramon Agirre, Patxi Biskert, Miren Tirapu.

Fot.: Gorka Gómez Andreu.

Mús.: Aranzazu Calleja y Maite Arroitaurregi.

Son.: Andrea Saénz.

Dir. art.: Mikel Serrano.

Vest.: Nerea Torrijos.

Mikel INSAUSTI

No merece la pena perder el tiempo intentando explicar las razones por las que "Irati" (2022), a pesar de sus cinco nominaciones para los Goya, se fue de vacío, desplazada por la película del nuevo cineasta oficial de la corte. Es en el festival de Sitges donde mejor saben apreciar el trabajo de Paul Urkijo, y así su segundo largometraje se hizo con los premios del Público y de Mejores Efectos Especiales. No obstante, la verdadera importancia de esta gran obra de la Euskal Mitología, reside precisamente en su capacidad para ilustrar en la gran pantalla todo ese legado cultural como antes ninguna otra obra audiovisual producida en Euskal Herria lo había llevado a cabo. Los mitos y leyendas locales se adaptan a las mil maravillas a una creación fan-



tástica medievalista que se nutre del género de espada y brujería. Se la puede emparentar en dicha vertiente con "Conan" (1982) o "Excalibur" (1981), respectivamente de John Milius y John Boorman. En cuanto a las secuencias bélicas, su empleo de los elementos climáticos y oro-

gráficos remite a Orson Welles y "Campanadas a medianoche" (1965) o a los "Macbeth" de Roman Polanski (1971) o Justin Kurzel (2015).

Visualmente es fascinante, siempre partiendo de la novela gráfica de Juan Luis Landa y Jon Muñoz "El ciclo de Irati". Los se-

res atávicos que habitan bosques, cuevas, ríos y montañas conectan con las corrientes modernas del «folk horror» y películas de otras latitudes como "Midsommar" (2019) o "The Wicker Man" (1973).

El reparto coral se cuenta así mismo de esa fuerza

telúrica, con caracterizaciones tan arraigadas como brillantes. Hombres, mujeres y criaturas paganas que nos trasladan al siglo VIII mediante la magia y la narrativa oral que ya emanaban de su ópera prima "Errementari" (2018).